

# BALEIKE



201. ZENBAKIA. EURO BAT  
2011ko UZTAILA-ABUZTUA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)



## AGUR, ALBERDI, AGUR

Lau belaunaldiren ondoren,  
Alberdi pasteleriak atearak  
itxi berri ditu.

# Casa BASUSTA

CASA  
BASUSTA  
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

*Etxez etxeko zerbitzua*

Santiago auzoa, 18 TEL: 943 862611



## ERROTA



## OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta  
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

# BALEIKE 201

18

baleike +

AGUR, ALBERDI, AGUR

AZALA a. rubio aprea



## HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpuru, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietala eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

4

hitz-tantak

KRUX UGARTEMENDIA

7

bertso xorta

MAIALEN VELARDE

9

erreportajea

ANE EIZAGIRRE

15

argazkitan

BOXEO GAUA

29

agenda

UZTAILA-ABUZTUA

30

ipuina

KATUA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiako Udala



# “Asko daki jendeak ginebrari buruz”

Kresala tabernaren kanpoaldean kartel berezia dago. Luzea. Dotorea. Atentzioa ematen du, eta jakin-mina ase nahian, barrura jo dugu. Bertan da nagusia, eta hasi gara kartelaren misterioa argitu nahian.

TESTUA eta ARGAZKIAK: AITOR MANTEROLA

## Tabernaren kanpoaldean dagoen kartel berezi horretan zer jartzen du?

Berrogeita hamarren bat ginebra mota ezberdin dira, Ingalaterrakoak, Estatu Batuetakoak, Frantziakoak... Euskal Herriko bizpahiru ere badaude. Tonika ezberdinak ere azaltzen dira, nik hiru jarri ditut gehiago jartzeko lekurik ez dudalako tabernan. Eta laranja, limoia, pomeloa, enebroa, sagarra... zer jarri behar zaion ere idatzita dago.

## Lan handiak hartu dituzu...


Sei hilabete pasatu ditut prestatzen. Txukun egin nahi nuen.

## Denak probatu al dituzu?

Batzuk bai. Egunero ari naiz bat probatzen. Pixkanaka nabil.

## Markaren arabera daukazu antolatuta?

Bai, eta herrialdea ere kon-



tuan hartzen da. Gehienak Ingalaterrakoak dira. Frantziakoak ere asko ari dira ateratzen. Kataluniakoak ere badaude.

## Erraza al da marka horiek denak ekartzea?

Ez. Batzuekin denbora denbora pasatu behar izan dut, zaila delako lortzea. Delikatatesen dendetan ibili naiz bila, eta enkargatu ere egin ditut beste batzuk.

## Zein da ginebrak tabernara ekarri artean egin beharreko bidea?

Batzuk nik ezagutzen ditut, beste hainbaten berri bezeroek ematen didate, “halako lekutan hau probatu nuen” esanez. Biltegi handietara ere joaten naiz, eta hangoek ere aholkatzen didate. Dendetara ere joaten naiz, bila. Merkatuan daudenak denok ezagutzen ditugu, baina beste batzuk ekartzea zailagoa da.

## Ginebraren bati ba al diozu aparteko miresmena?

Estatu Batuetako bat badut, 209 izenekoa. Asko kostatu zitzaidan lortzea, laranjaekin ateratzen da.

## Jendeak zer eskatzen du gehien?

Ingalaterrakoak. Frantziakoak bereziak dira, eta garestiak. Konbinatu bakoitzak 11 edo 12 euro balio du, eta jakina, ez diot jendea aurrenekoan hori

“Ezin da edozein moduz atera. Izotza ona behar da, adibidez”

aterako. Ez dakienak betikoak eskatzen ditu.

## Noiz jarri zenuen karta?

Duela hilabete. Gabonak aldera hasi nintzen prestatzen, eta denbora asko pasatu dut horretan.

## Kartan ginebra gehiago sartzeko asmorik bai?

Bai, baina lokala daukat txikia, eta lekurik gabe ari naiz geratzen. Moldatu egin beharko dut.

## Gertatu al zaizu ginebraren bat ekarri nahi eta ezin ekarri izana?





**Krux Ugartemendia**

**Jaioteguna: 1962ko apirilaren 29a.**

**Jaioterria: Zumaia**

**Lanbidea: 15 urtetik tabernan. 34 urte daramazkit. Gustatzen zait.**

Denak lortu ditut. Batzuk ekartzea kostatzen da, baina azkenean, denak mareatu ditut, eta hemen daude.

#### **Zergatik ginebraren karta?**

Moda kontua da. Orain ginebra dago modan. Pentsa, Malagan taberna batean, gintonikak bakarrik ateratzen dituzte. Aurreko batean, Interneten begira egon nintzen, eta 80ko hamarkadan, koñak zegoen puri-puri. Orduan hasi nintzen tabernan lanean, eta hala zen. Gero, 90eko hamarkadan, whiskyak kendu zion lekua. 2000n rona jarri zen modan, eta orain, ginebraren bolada dago.

**Bolada hau pasatakoan, beste zerbaiten karta prestatu beharko duzu, orduan.**

Hori da.

**Ronaren karta ere baduzula entzun dut.**

Bai, badauket, 65 marka

ditut. Baina ez du ginebrak bezalako aukerarik ematen nahasketak egiteko.

#### **Nolako harrera izan du ginebraren kontu honek?**

Sekulako arrakasta izaten ari da. Jendea probatzera etortzen da, egun batean bat, hurrengoan bestea. Gero, limoiaz gain, beste nahasgarri batzuk ere jartzen ditugunez, kanela, regaliza eta horrelakoak, horrek ere erakarri du jendea. Gereziarekin ere nahasten dugu, eta deigarria da hori.

#### **Jendearekin galdetzen al dizu ginebraren jatorriaz eta?**

Bai, jakin-mina izaten dute, hau zergatik eta bestea zergatik.

#### **Hemen inguruan ba al dago horrelako kartarik beste tabernetan?**

Donostian badago taberna bat, eta joan nintzen. Baina ez nuen asko ikasi. Ginebra

“Merkatuan daudenak denok ezagutzen ditugu, baina beste batzuk ekartzea zailagoa da”

asko dauzka, baina tonika bakarra dute, eta beti limoia-ekin ateratzen dute, gainera.

#### **Jendea ohiturak aldatzen hasi al da ginebra edateko garaian?**

Bai. Beti izan da gaueko edaria gin-tonika, baina orain jatorduaren aurretik ere eskatzen hasi dira: afaldu aurretik, adibidez. Gauekoa baino txikiagoa izaten da, suabegoa.

#### **Gin-tonika ona izateko beharrezkoa al da ateratzeko modu berezia edukitzea?**

Ezin da edozein moduz atera. Izotza ona behar da, adibidez. Poliki bota behar da, maitasun osoz nahasi. Norberarentzat balitz bezala prestatu behar da.

#### **Ginebra, sorreran, botika omen zen.**

Bai, hala zen. Gero hasi ziren tonika nahasten Ingalaterrako soldaduak, Indian. Tonika botika zen malariaren kontra, baina nazkatu ziren soldaduak tonika hutsa edaten, eta ginebra nahasi zioten.

#### **Istorioren horiek denak kontatzen al dizkiozu jendeari?**

Bueno...Baina nik uste baino gehiago dakite. Orain, Internetekin eta gauza asko jakin daitezten. ■



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak  
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala  
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak  
a3zumala@terra.es



**L I B R U D E N D A**

**AIZPURUA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

**ALBERDI**  
Dj July

Musika onena eskontzetan,  
kintoen ospakizunetan eta era guztietako festetan

600 982 810  
july\_alberdi144@hotmail.com




**ALGORRI TABERNA**

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157  
anasetxeokozapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA

*D'Ana*

Kantauri plaza, 6. behea  
tel. 943 117 406



**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hegoakalea, 4-5  
Dienda: Tacorin Agirre, 4  
Tel.: 943 082 532

Aroztegia: Santiago, 40  
tel.: 943 861 651

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK


- Berokuntza sistemak
- Giroteza
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

www.argisun.com  
info@argisun.com



OKINDEGIA  
*Artisano*



Napuzki 2 - tel. 943 861 921  
ZUMAIA

OGI-EDER

**ARRUTI**  
Baltasar Etxabe 2/9  
Zumala 943016429




**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5  
tel. 943 861 485

Finis, French, English, Español, Catalonian, Italian, Basque, Catalan, Finis, French, English, Español, Catalonian, Italian, Basque, Catalan

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25  
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306  
bakun@euskalnet.net



**Basodi**  
albaitaritza

Albaitaria  
Itzi Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310  
velenasa@basodicalvet.com  
www.basodicalvet.com

Golbez: 11-13 / Armatzak: 16-19:30 / Astetuen goizean eta larunbelean 8:30  
Lamiak/Elbarako: 606 728 707 Ebeze ebeko zerbitzua

**BASUSTA**  
ERRETEGIA



Patalla Etxezarreta, 25  
tel. 943 862 073

**BATELA**



**ARRANDEGIA**

Izustarri, 2-4  
Tel. 943 860 750

**Braky's**  
Okindegia Kafeategia

Izoga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
TL: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289



# Zumaia irudikatzen

Doinua: "Neska zaharrak eta apaizak"



1.

**A**maia plaza arrantzaleen  
ur gazietan barrena  
argazkien oroimena  
edo padurak hautsiz egungo  
poligonoen ordena  
Gernikan hasi, Erriberara  
zubia izan zen hurrena  
Gaur dena eta atzo zena  
oharkabean denborarekin  
aldatzen badoa dena  
Ez al da hobe herria bada  
erabakitzen duena

2.

**E**ta Alondegia honetan bada  
tartea erabakitzeko  
libre amets egiteko  
zenbat zuhaizti, zelai orlegi  
Zuloagan gozatzeko  
Museoa izango balitz bidea  
ateak irekitzeko  
balio badu hobeto  
ikasleari arkitekturan  
apurka erakusteko  
eta herrian ditugun leku  
ahaztuak gogoratzeko

3.


**N**ola harrapatu leiho batean  
egunaren lehen printza  
esku artean lapitza  
Nola sentitu behatz puntekin  
olatu osteko bitsa  
Talaie ertzean pistina batzuk  
eta ikasleen hitza  
Zein izan ote da giltza  
Natura bera tresna izatea  
eta lehenengo baldintza  
Dagoena eta datorrenaren  
arteko elkarbizitza

4.

**I**kaslearen jakin-mina eta  
herritarren esperientzi  
Kirol Portu eta belaontzi  
Etxebizitza utopikoak  
egon daitezkeela etzi  
Nahiz nork berea bihurtzen dugun  
ukiezin, harribitxi  
Nola, noraino iritsi  
Eta Zumaia irudikatzen  
gustuak haina iritzi  
Baina beste bat ireki aurretik  
ezin da aterik itxi

5.

**E**derra denez lau horma hutsei  
bizitza bat ematea  
espazialki jolastea  
zumaia nola alda litekeen  
ideia bat izatea  
alondegia eskaini digu  
horretarako tartea  
zabalduz gero atea  
denon eskura neurrira egongo  
da bizi-kalitatea  
utopiazko lau marraz sortzen  
bada errealitatea



## BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## EGOKI



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097  
ekinsi@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet



DIGITAL+



Erribera, 8

tel. 943 861 694



## ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045



ERROTA  
OPIL-OKINDEGIA  
SANTIXO AVUZA, 32  
20750 ZUMAIA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
errota@errot-a-okindegia.com

## ERTZ INFORMATIKA

Portatilak  
konpontzeko  
zerbitzu berria

Eskatu aurrekontua  
kompromisorik gabe,  
**DOAN**



Behoko plaza

tel./faxa: 943 143 395

## FARMA ZUMAIA

Parafarmazia • Belar-denda  
Tel. 943 865 323

### PRODUKTUAK

- Urne eta haurrentzat, dietetikoki, kosmetikokiak, hanka eta eskuen zaintzarako...

### ZERBITZU BEREZIAK

- Dieta, Naturapala, Idoklogia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesiozkoak, Etsesaren Arbuizetarako, Buruko minen, Zirkulazio arazoak... kontrakoak), Akupuntura: horietatik eta horietatik gabe

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA

## Galdona



burdindegia

Mendaro marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

## GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



kafetegia

Txomin Agirre kaia

Tel. 943862181



GAZTE, S.L.  
ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabiloia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



## GOIKO TABERNA

Erribera, 9

tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate  
Institute  
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net

Gure Txokoa  
taberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaia  
Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis

tel. 943 143 334



# BIZITZARENAK DIRA ALDAPA GOGORRENAK

TESTUA: AINARA LOZANO LASA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA  
ETA DISTIRA ARGAZKI ELKARTEA

Uztailaren 10ean Zumaia Flysch Trail mendi lasterketan hartuko du parte Ane Eizagirrek. Kirolzale amorratua, 2004an, 16 urte zituela, bizitzak aldaparik gogorrenaren aurrean jarri zuen: minbizi linfatikoa aurkitu zioten medikuek. Kemen handiarekin, gaixotasuna gainditzea lortu zuen.



Haurra zela, aitarekin Moilan aritzen zen paseatzen, Urola ibaian piraguan aritzen zirenei begira. “Nik hor nahi dut ibili! Nik hor nahi dut ibili!”, esaten zion maiz aitari, entrenatzen zebiltzanak seinalatuz. Zortzi urte bete zituenean, Itxas-Gain klubean eman zuen izena eta bere ametsa bete zuen: piraguista izatea.

Ordutik 15 urte igaro dira eta Ane Eizagirrek (Zumaia, 1988) ez dio arraun egiteari utzi. Soilik urtebetez: 16 urte zituela minbizi linfatikoa zuela esan ziotenean, tratamendua jasotzeko. Hala ere, ospitalean ez zegoen egunetan itsas kiroldegira joaten zen laguntzera eta lagun konpainiarekin gozatzeraz. Gaur egun, infantil mailako piraguisen talde bat entrenatzen du eta beste zaletasun bat ere topatu du: korrika egitea. Zumaia Flysch Trail mendi lasterketan hartu zuen parte iaz lehenengo aldiz, eta 23 urtez azpiko lasterketa irabazi zuen. Aspanogiko (Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteko) kide da eta ikus-entzunezko ikasketak egin eta gero, Gizarte Laguntza ikasten ari da heldutasun eta kemenez betetako gaztea.

Hamar urterekin alebin mailan aritu zen, Itxas-Gainekin. Infantiletan eta kadeteetan bina urte egin eta gero, jubeniletako lehen urtean kirola utzi behar izan zuen, gaixo zegoelako. Bigarren urtean berreskuratu zuen zaletasuna eta seniorretako lehen urtea ere egin zuen. Orain, baina, gaztetxoeci



*Gaixo zegoela Itxas-Gainen lokalera joaten zen laguntzera.*

erakusten aritzen da, gehienbat. Bakarkako kirola delako du gustuko piraguan ibiltzea. “Badaude binaka edo launaka aritzeko modalitateak ere, baina neguko entrenamenduak oso gogorrek dira, eta bakarrik ibili behar duzu prestatzen. Lana zuk egiten ez baduzu, ez duzu ezer lortzen. Piraguismoa ez da taldeko kirola. Errendimenduko kirola gustuko dut; esfortzu handia egitea eta buruari gogor egitea”. Piraguari esker, Espainia osoa bisitatzeko aukera izan du. Portugalen ere izan da, Espainiako selekzioarekin, jubenilen bigarren urtean. “Ez ginen mundialerako sailkatu, baina oso esperientzi polita izan zen. Ez nuke aldatuko”. Anekdota ugari ditu garai horietakoak eta egun txarrak baino, lagunekin izandako momentu politak eta barreak ditu gogoan. “Nahiz eta piragua utzi, herri txikia da hau eta hemen ibilitako guztiek elkar ikusten dugu kalean eta berriketan aritzen gara maiz. Oso harreman ona dugu”.

Oso kirol lotua dela ere nabarmendu du: “Astean sei egunetan entrenatu behar duzu eta motibaziorik ez baduzu, ezin goiko mailan aritu. Horregatik, nahiago nuen neure kasa ibili. Baina ez dut sekula kirola utzi, oso gustuko dudalako piraguan ibiltzea. Hemengo jendearekin giro polita dut eta goiza pasatzera ere etorri izan naiz askotan. Umeekin lanean aritu nahi nuen galdetu zidatenean, ez nuen bitan pentsatu. Baietz esan nuen. Iaz izan zen lehen urtea eta aurtengoa bigarrena”. Beste perspektiba batekin ikusten du orain piragua; hasieran “arraroa” egiten zitzaion beste batzuk entrenatzea, baina iaz entrenatzaile titulua atera zuen eta lana bideratzen lagundu diola azaldu du. “Klubean hurrekin lanean urteak daramatzatenek bidea ireki didate eta nik jarraitu besterik ez dut egin”. Hamalau urteko haurrak entrenatzea ez da lan erraza, baina gustura dabil. “Hamalau urte izateko oso ongi dabilta eta gustura nago egindako lanarekin”.



*Piraguismoa ez du utzi Anek; 14 urteko haurrak entrenatzen ditu gaur egun.*

## Nerabetasunetik heldutasunera, salto batean

2004. urtearen bukaeran minbizi linfatikoa zuela esan zioten. Zaila egin zitzaion onartzea; ezin zuen sinetsi. “Gaixo egon aurretik entzuna nuen zer den, baina gaixotasuna jasan arte ez dakizu zehazki ezer. Eta, batez ere, tratamenduarekin hasen zarenean konturatzten zara benetan zein larria den. Hala ere, ez nuke bizitzako atal txar bat bezala hartuko. Gauza asko ikasi nituen garai hartan, gauza asko barneratu nituen eta balio pila bat hartu nituen”. Horrela konturatu zen nor izango zuen ondoan benetan eta nor ez.

Nerabezaroaren bukaera ez zuela bizi ere egin azaldu du: “Uste dut 16 urterekin edo 20rekin berdin pentsatzen nuela. Pasatako garai gogor hura zela eta, bat-batean heldu nintzen”. Egunerokotasuneko “detale txikiak” ere aldatu zaizkio: “Goizean ohean lotan geratzearena ez dut ulertzen orain. Lehen ere gutxi egiten nuen, baina orain are gutxiago. Orain goiz jaiki eta eguna ahalik eta gehien aprobetxatzen dut. Itxas-Gainekoek ere asko lagundu zidaten garai hartan eta uste dut horregatik dudala klubarekin lotura berezia. Nire bizitzako parte garrantzitsu bat da. Bisitatzera etortzen zirenen ospitalera eta han ez nengoenean denbora gehien hemen pasatzen nuen, lokalean. Etxean ez nintzen batere egoten; laguntzen pasatzen nuen denbora”.

Urtebete egon zen gaixo. 2005eko udan amaitu zuen tratamendua eta errebisioak egin dizkiote ordutik. Alta hartu arte bost urte pasa behar dira eta ia eman zioten. Gainditu duen arren, errebisioak egiten jarraitu beharko du bizitza osoan.

Epe horretako gauzarik gogorrena ospitalean egin zituen lagunak galtzea izan zela dio. Ezin dio negarrari eutsi hura gogoratzean: “Hiru lagun ginen ospitalean. Ane, Beñat eta hirurok. Beste biak ni baino bi urte gazteagoak ziren eta oso lagun minak egin ginen. Beñatek hezurretako minbizia zuen eta lehena izan zen hiltzen. Ane, berriz, duela urte eta erdi joan zitzaigun. Etapa gogor batean egindako lagunak ziren eta zure momentu berdinak bizi zituztenak. Nahiz eta urruti egon, bagenekien zer egiten zuen bakoitzak eta maitasuna hartu genion elkarri. Harreman oso berezia zen. Momentu gogorrena hori izan zen, dudarik gabe, lagunak galtzea. Zu fisikoki oso baxu egon zaitezke kimioterapia jasotzean, baina zurekin dagoen bat galtzea gauza asko pentsarazten dizkizu. Bizitzeko gogo handia zuten...”.

## Aspanogirekin bat

Inork baino hobeto dago Anek zein garrantzitsua den bakarrik ez sentitzea horrelako gaixotasun bat izatean. Horregatik, Aspanogiko kide da gaixo jarri zen urtetik. Elkarre honen lana “oso





*Piragua eta korrika egitea antzekoak direla dio: "bata uretan egiten duzu eta bestea kalean, baina zuk zure buruarekin beti".*

### III. Zumaia Flysch Trail mendi lasterketa

Uztailaren 10ean jokatu da Zumaia Flysch Trail mendi lasterketaren hirugarren edizioa. Zumaia eta Deba arteko itsaslabar ikusgarrietan diseinatutako 30,5 kilometroko ibilbide gorabeheratsuan neurtuko dituzte indarrak izena eman duten 500 korrikalariak.

#### Goi mailako korrikalariak

Aurreko bi urtetan bezala, aurtien ere Raul Garcia Castan, 2009ko Europako txapelduna, Zumaian izango da. Espainiarra izan da lehen bi edizioetako izar nagusia, eta bera izango da gainditu beharreko korrikalaria. Baina ez da kontuan hartu beharreko korrikalari bakarra izango. Hemen izango dira, besteak beste, Luis Alberto Hernando 2010eko Espainiako txapelduna eta Europako txapeldunordea, Aitor Osa (iaz bigarren), David Lopez (hirugarren Espainiako Txapelketan), Joseba Plaza (Euskal Selektzioa), Walter Bece-

rra edota Pedro Etxeberria zumaiaarra. Gainera, Euskadiko Kluben arteko Txapelketa jokatu denez, ikuskizuna areagotuko duten goi mailako korrikalariak espero dira.

Emakumezkoen artean, Oihana Kortazar sasoi betean dago azkenaldian eta bera izango da garaipena lortzeko faborito nagusia. Garaipen ikusgarria lortu zuen Zegamako mendi maratoian, Europako Kopako lehen proba ere irabazi zuen Emanuela Brizio italiarrari hiru minututik gorako alde aterarata, eta Espainiako Txapelketa irabazi berri du. Kortazarrez gain, 2010ean Espainiako txapeldun izandako Blanca Serrano eta iazko Flysch Traileko irabazle Ana Conde ere irteeran izango dira. Nuria Dominguez, hirugarren Espainiako Txapelketan, eta Elena Calvillo (Euskal Selektzioa) ere aipatzekoak dira, beste askoren artean.

#### Ibilbide luzeagoa eta gogorragoa

Aurtengo ibilbidean zenbait aldaketa egin dituzte antolatzaileek, lasterketa gogortze aldera. Izan ere, klub arteko Euskadiko Txapelketa jokatu da bertan, eta Euskal Mendizale Federazioak zailtasuna areagotzeko eskatu du. Horrela, ibilbide nagusia 3,5 kilometro luzeagoa izango da (30,5km), eta desnibela eta 1.020 metrotik 1.370 metrora igoko da. Horri esker, probak 42ko koefizientea izango du (lehen 27koa zuen). Sub-23 eta juniorren ibilbidea 13,2 kilometrokoa izango da. Ibilbidean egindako aldaketa guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin aztertu eta adostu direla azpimarratu dute antolatzaileek.

Orohar, ibilbideak asfalto gutxiago eta mendi bide gehiago izango ditu. Lasterketa hasieran, Parolerako joan-etorria kendu da, eta hilerrirako igoera ere bai. Horren ordez, Ardantzatik

garrantzitsua” dela nabarmendu du. “Mundu honetan sartzen zarenean oso arrotza da guztia. Hala izan zen bai niretzat, baita nire familiarentzat ere. Ospitalean geundela gerturatu zitzaizkigun Aspanogiko kideak eta laguntza handia eman ziguten. Zer egin behar genuen adierazi ziguten eta doako telebista ere jarri zidaten gelan. Ospitalean bertan egiten duten lana ere mireste-koa da. Gela isolatuak egitea ere lortu dute, ume bakoitzak bere gela izan dezan. Nahikoa duzu zuk zure egoerarekin, ondoan zu bezala dagoen norbait izateko. Hobe da bakarrik egotea. Halaber, zu zaintzen dagoenarentzat ospitalean doako bazkariak ematen dituzte. Gauza txikiak dira, baina oso garrantzitsuak han bi hilabete igaro behar dituenarentzat. Psikologoak eta gizarte langileak ere badaude elkarteetan bertan, eta asko laguntzen dute”. Haurrek “aisialdirako aukera bat izan dezaten”, Aspanogik Port Adventurara edo bestelako lekuetara irteerak ere antolatzen ditu. “Nik 16 urte nituen gaixo nengoenean, baina gazteagoak joaten ziren irteeretara, eta oso ideia polita iruditzen zitzaidan. Familiak elkartzen dira eta elkarteko gurasoek oso harreman ona dute”.

### Uretatik errepidera

Seniorretan urtebete aritu eta gero piragua utzi zuenean, urtebete egon zen kirolik egin gabe. Baina korrika egiten hasi zen, eta gustatu zitzaion. “Piraguista nintzenezan, neguan, denboraldiaurrean korrika egiten nuen entrenatzeko. Gaixo egon eta gero itzuli nintzenezan, ezin nuen piraguismoa nahi

bezala egin eta kirol hori utzi nuenean heldu nion berriro korrika egiteari, gaur arte. Piragua eta korrika egitea antze-koak dira, bata uretan egiten duzu eta bestea kalean, baina zuk zeure buruarekin beti. Ez dira oso ezberdinak”.

Zumaia Flysch Trail mendi lasterketan parte hartu du: lehen urtean laguntzaile, eta iaiz korrika. Lasterketan biltzen den dirua Aspanogiri ematen zaio. Horregatik, lehen urtean boluntario aritu zen lasterketan, Iñigo Saenz Txolo eta Joxe Antonio Txiki Gorostolak hala eskatuta. “Oso lotura handia dut Txikirekin, eta laguntza eskatu zidanean, ideia oso polita iruditu zitzaidan. Aita eta ama ere aritzen dira lasterketan laguntzen”.

Iaz orrikalari bezala hartu zuen parte eta 23 urte azpiko lasterketa irabazi zuen. Proba gogor eta ikusgarria izan arren, oso esperientzia polita izan zela nabarmendu du: “Entrenatzen ari garenean, eguraldi ederrarekin, ibilbide ederra dela ikusten dugu; dena berdea eta urdina. Baina lasterketa egunean, leher eginda zaudenean, ez zara konturatzen hortaz, burua ezin duzulako ia altxa ere egin. Hala ere, hobe horrelako bidea izatea, sastraka batzuk egotea baino”. Lasterketaren bukaera, Talaimendiko bidea, izan zen Anerentzat okerrera: “Gogorra den arren, aldi berean polita ere bada. Aurten berriro motza egingo dut; azken urte da motzean aritu naitekeela”. Ondoren, urtean zehar entrenatzen arituko da hurrengo urtean lehenengo aldiz ibilbide luzea egiteko. Kemena, behintzat, ez zaio falta horretarako. ■

zuzenean Santa Klarara igoko da. Eloorriagara iristean, aisialdirako gunetik joan beharrean, eskuinera beherantz doan bidea hartuko da (komunen partetik), muinoaren bestaldean berriro gora egin eta Arantza aldeko bidea hartzeko. Tarte hau joan etorrikoa izango da.

Beste aldaketa Mendata pasa ondoren izango da. Txarturitik Sakoneta aldera zementuzko bidetik jaitsi beharrean, errepidea gurutzatu eta Sagarmina baseritik Astiko errepidera jaitsi eta Itziartik Errotaberrira doan bide hartuko dute. Errotaberrira iritsi baino lehen, Uzkanarako bidegurutzea hartuko dute, Sakonetarako jaitsiera hartzeko.

Azken finean mendiko bide gehiago izango ditu, eta gogorragoa eta ikusgarriagoa izan da.

### Omenaldia Bereziartu, Otegi eta Iriondori

Ez dira hor amaitzen lasterketa honen berezitasunak. Mendiari lotutako kiro-

lariak omentzea da beste helburuetako bat. 2009an Patxi Usobiaga eskalatzaileak jaso zuen omenaldia; iaiz Edurne Pasaban, Alex Txikon eta Asier Izagerreri egokitu zitzaion. Aurten berriz, Josune Bereziartu eta Rikar Otegi eskalatzaileek, eta Pako Iriondo Euskal Mendi Federazioko presidente ohiak jasoko dute omenaldia. Proba hasi aurretik ohorezko aurrekia dantzatuko zaie, zinta moztu eta Keixetaren eskultura berezi bana jasoko dute.

### Dirua Aspanogirentzat

Lasterketa honen ideia sortu zen unetik bultzatzaileek garbi izan zuten helburu sozial bat ere izan behar zuela. Aurten ere biltzen den dirua Aspanogirentzat izango da, minbizia duten haurren gurasoen Gipuzkoako elkar-tearentzat.

### Hautzaindegi zerbitzua

Behar duten korrikalari guztiek hautzaindegi zerbitzua erabil ahal izango dute. Gernika Parkean egongo da.

### Uztailaren 10eko egitaraua

**8:45ean** Kutxa aurreko plazatik abiatuta, Indamendi elkarteak gidatutako mar-txa. Zumaiako Elorriagara irteera.

**9:45** Ohorezko aurrekia eta Zumaiako herriaren omenaldia Josune Bereziartu, Rikar Otegi eta Pako Iriondo.

**10:00** Senior eta Sub-23 lasterketaren hasiera.

**13:00** Sub-23 modalitateko sari-banaketa.

Gernika parkean hautzaindegi zerbitzua egongo da.

**13:15** Senior mailako sari-banaketa eta jarraian, beteranoen sari-banaketa.

**13:30** Zumaiako Udalak babestuta, antolatzaileek txalupaz bidaiara egingo dute flysch-a ezagutzera.

### III. Zumaia Flysch Trail

**Noiz:** uztailaren 10ean

**Ordua:** 10:00etan

**Lekua:** Zumaia

**Distancia:** 30,5 km (sub-23, 13,2 km)

**Markak:** Gizonezkoetan, Raul Garcia Castan (1:51:44); emakumezkoetan, Ana Conde (2:19:08)

**Informazio gehiago:**

[www.zumaiaflyschtrail.com](http://www.zumaiaflyschtrail.com)

**API**  
**Ibaitin**  
 inmobiliaria

Ricardo Azkue  
 API 399


Txomin Agirre 4, beheka  
 tel. 943 862 651  
 faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

*Idoia*  
 Moda denda  
 Androginietan espezializatzen

Julio Beobide, 2 beheka Tel. 943 86 03 01  
 idoia@maiaa@gmail.com

**Shinza**  
 Zumaia



**ilarzi**

Alai auzategia, 2  
 Tel. 943 24 50 20



**IRIONDO JATETXEA**

Txikiardi  
 auzoa  
 Tel. 943861390  
 675715017



Gure espezialitatea:  
 arrainak eta baragia parrillan

**IRUITZ**

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 860 760



**ITSASKI**  
 SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

**Itzurun, S.L.**  
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotatuak...

Itzurun Zuhazbidea, 2 beheka  
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

**ORRAZTEGI ZUMAI**

943 862 083



**JUARISTI**  
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
 Eguneko menua  
 Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

**KABI** Patxia Etxezarotz 15  
 943 117 427

TABERNA



**Kaithermik S.L.**

**Arotzeria metalikoa**  
 Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320



**kalari**

Upela plaza, 8  
 tel. 943 862 517



**Kresala**  
 Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869



**kuttun**  
 lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



**Larraitz** ile-apaindegi  
 leku erakusgarri zentral

Basadi auzategia 5 beheka  
 Zumaia  
 tel.: 943 14 30 41



**malaun**



# BOXEO GAUA

ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Boxeo borrokaldiak ikusteko aukera izan zen uztailaren 2an. Aspaldiko zaleak eta ezohiko ikuskizunak erakarrirako ikusleak bildu ziren Zumaiaiko kiroldegian. Gure kamerarekin jasotako irudiak dituzue argazki-erreportaje honetan –bilduma osoa baleike.com-en aurkituko duzue–.



ARGAZKITAN



## BOXEO ESKOLA

Boxeo gaueko borrokaldi nagusia Zabalowsky eta Nieto neoprofesionalek artekoa izan zen. Manu Maritxalarrek egin zituen epaile lanak. Zumaian sortu berri den boxeo eskola sustatzeko antolatu zuten jaialdia. Ruben Arredondo kubatarraren agindupean 13 boxeolari daude gaur egun eskolan. Datorren denboraldian haietako batzuk jaialditan borrokatzeko moduan izango dira ziurrenik.







# ALBERDI PASTELERIA, ARTISAUTZAREN XARMA GOZOA

TESTUA: IMANOL AZKUE  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA



Alberdireneko pasteleria itxi behar zutela jakin orduko, berehala komentatu nien *Baleikekoei* mereziko zuela erreportajea. Komentatu, behar bezalako kazetari batek egingo zuelakoan; zer naiz, ordea, biguna: ez daukat gogoan konbentzitu egin ninduten edo neu eskaini nintzen boluntario, baina azkenean neuk egin behar. Iraganerako bidaia atsegina egin dut egunotan, hau idaztean.

### ▼ ESKAPARATEA

*Auskalo zenbat eta zenbat ume egon den koskaren gainean besoak jarrita, irudi koloretsuei begira!*



Pastelerian bertan egin dut zita Mari Nieves Alberdirekin (Zumaia, 1947), eta eskaparatek begiratu dudanean, hantxe ikusi dut barruan zain. Oraindik ere arraroa egiten da kristalaren atzealdean apal hutsak ikustea.

Abegitsu hartu nau, mostradore ondoan, betiko dozena eta erdi pastekeko bandeja jarri beharko balit bezala, baina ez dago pastelak aspaldian Alberdirenean, eta hain bereizgarria zen pastel usain gozorik ere ez, sartu orduko konturatu naizenez.

Besteetan ez bezala, gaur mostradorearen ondotik obradorera sartu naiz, barrura. Beste mundu bat zabaldu da orduan, eta ulertzen hasi naiz pastelgintza artea ere badela.

Berehala eman dit atentzioa goiko pisura doan eskailera kiribilak, eta hanka soinuarekin batera jaitsi da handik Mari Paz Alberdi (Zumaia, 1952). Etxe osoa, berez, Carmelo Unanuerena da, eta familiakoa izanik (amaren senidea), hark jarri omen zion eskailera Jose Agustini, Mari Nieves eta Mari Paz-en aitari, etxetik lantokirako bidean erosoago ibiltzeko. Bizimodua, ordea, gehiago egin izan dute behean, obradorean, goian baino: “Ia dena hemen behean egiten genuen: Nieves amak hemen prestatzen zuen bazkaria, hemen jaten genuen, hemen egon..., eta gora erretiratu, lotara”.

### Familia gozogilea

Argazki albuma atera du Mari Nievesek marmolezko mostradore gainera, eta zuri-beltzeko argazkien aurrean azaldu dit aita-eta 13 anai-arreba zirela, “tartean ume batzuk galduta, gainera”. Hortik hasi gara, gozogile langintza nondik datorkien errepatatzen: “Gure birraitonak, Jose Bentura Ibarrek, denda eta lantegia zeukan Goiko kalean, Zunbillon; haren alaba Eustasiarekin ezkondu zen gure atitita, Fakundo Alberdi, eta hark gozoak eta kandelak egiten zituen hemen, lehengo etxean; gu hemen jaiotakoak gara denok, eta gure aitak hartu zuen negozioa, 1948an; atittak eta osaba Ramonek kandelak egiten jarraitu zuten, etxeko ganbaran; baina gau batean etxeak su hartu eta erre egin zen, osorik, 1953an-edo; orduan, beste bat eraiki zuen Carmelo Unanuek, hau, altuagoa; osaba Ramonek kandelak egiten jarraitu zuen, Estazioan, Basustanekoen etxean [Txepetxaren ondoan], eta gure aitak hemen, pastelak egiten. Egin zenetik, ezer gutxi aldatu da hau, makina batzuk-eta bai, baina gainerako ia guztia, distribuzioa-eta, berdin-berdin dago”.

Famili negozioa izan dela garbi dago. Jose Agustinek laguntzaile hartu zituen seme-alabak: “Gu biok, emakumeak, despatxoan, kanpoan, eta gizonak [Agustini anaia eta Manolo Bernal, Mari Nievesen senarra] obradorean, barruan; bada beste ahizpa bat ere, Maribel, Katalunian bizi dena, baina hura ez da ibili hemen lanean”. Noiztik aritu diren lanean galdetuta, “Ez dut besterik gogoan! Beti ibili izan gara hemen”, dio Mari Nievesek. “Gazteagoak ginenean obradorean ere ibiltzen ginen, lan asko zegoenean-eta, baina aspaldian ez”. Horrek aukera eman digu galdetzeko lehengo lanaz, eta oraingoarekin konparatzeko: “Lehen askoz ere lan gehiago egiten genuen. Orain konpetentzia handiagoa da, gozogin-

tza industrialak min handia egin digu gozogle txiki. Orain pastelak edo tartak edozein lekutan saltzen dituzte: okindegietan, supermerkatuetan, dendetan...”.

### Izozkiak, irina, karameluak...

Gogoan dute lehen izozkiak beraiek ekarri zituztela, korteak-eta, Donostiatik, Frigo enpresatik. Trenez ekartzen zituzten, kortxo zurizko kasetan, eta Zumaiako estaziora iritsi orduko, hango langileek ekartzen zizkieten dendara; behar zutenean, deitu telefonoz eta hurrengo trenean bidaltzen zuten enkargua.

Irina, berriz, ekarraldian kamioi erdika ekartzen zuten, 60 kiloko zakutan, Iruñeko biltegi batetik, eta Joxe Kortak ere handik ekartzen omen zuen; etxearen atzealdeko karkaban gordetzen zuten, pilatuta, lona batekin estalita. Txinbi txaperoak errieta egiten zien behin baino gehiagotan, han ezin zela utzi ezer, herriko kalea zelako. Galdetu diogu ea orduan sanidadekoek ez ote zieten ezer esaten: “Orduan ez, orduan desberdina zen. Zumaiako albaitaria etortzen zen, Bixente Muñagorri, baina etxekoa genuen; hor eseri, anis kopa edan eta berriketan eginda, martxa egiten zuen”.

Karameluak egin, beraiek egiten zituzten, eta oraindik gordetzen dituzte haiek biltzeko paperak, malbaskozkoak-eta. Baina kanpotik ere ekarri, ekartzen zituzten; asko, gainerra: “Urtean bi eskaera egiten genituen, kiloak eta kiloak, eta hura guztia gordetzeko apal bereziak jarri behar izan genituen. Lehen oso desberdina zen. Etortzen zen gozokien errepresentantea eta ez zuen beste bisitarik egiten goiz osoan. Hortxe esertzen zen, labearen ondoan, gure aitarekin, ederki berriketan”, eta nola kontatzen duen ikusita, Mari Nievesen eskuak seinatzen duen txokoa bi gizonak ikusi ditut lasai ederrean, kontu-kontari.

### Pastelak (eta besteak)

Bakoitzak izango ditu bere gustukoak, baina Alberdineko pasteletatik bat aukeratu beharko bagenu, baietz gehien-gehienok bonbak edo palmerak hartu! Horixe dio Mari Nievesek: “Bonbak eta palmerak ezagunenak, Zumaiatik kanpo ere bai, eta horiexek saltzen ziren gehien. Gero, bestelakoak: petit chouxak, juanitak (bizkotxo eta krema finarekin eginak), txutxo edo dukesak (petit chouxak bezalakoak, baina biribilak), kanutilloak, otarrak (gainean gereziakin eta sagar pusketekin)...”. Tartak ere egin izan dituzte, beti-betikoak: bizkotxoa, hojaldrea, milorria, ijito besoa, saint honore (petit choux karamelodunekin)... Gabonetan, berriz, garaiko bereziak: turroia, mazapanak, errege erroskoa... Bestelakoak ere egiten zituzten, ordea: garaia zenean, inguruko baserritarrek irasagar-fruituak (menbrilloa) ekartzen zizkieten, eta irasagarra egiten zuten. Almendra garrapinatua ere egiten zituzten.

Gozotegia ez ezik, ordea, Alberdi janari denda ere bazen lehen, eta denda txikietan saltzen ziren produktuak aurki-

zitezkeen: lekak, latak, gailetak, arroza, tomatea, gazta, edariak... “Txorixoa ere bai, neuk moztzen nuen-eta kutxilloarekin”, dio Mari Nievesek. Janari denda ere bazela erakusgarri, festetan edo Udalak ekitaldi bereziren bat zutenean, Alberdinetik eramaten zuten askotan hamaiketakoak: hojaldre txorizodunak, atuna, opilak, ardoa... Mari Nievesek bereziki gogoan du Ardantzabideko zentral telefoniko automatikoa inauguratu zutenekoa, Udaletxean lunch ederra eman zutelako, zigala eta guztikoa. Alberdineko sukaldean prestatzen zituzten horiek guztiak.

### Bidean geratuak

Pastelen izenak aipatu dituztenean, gehien-gehienak ezagunak egin zaizkit, baina lehengo pastelen edo produktuen berri emateko eskatu diet, azkenaldian egiten ez zituztenak: “Adibidez, borratxoak. Edo jesuitak; horiek gero ere urtean behin egin izan ditugu, Maria Pilar Beobidek Loilara eramateko; hiruki formako hojaldreak ziren, eta izena zuten horrela jesuitak bezalakoak zirelako: ‘gozoak, lehorrak eta inork ez daki zer daramaten barruan’. Edo karterak, marmeladaz beteak. Edo karameluak: limoizkoak, marrubizkoak... Pipak egiteari ere utzi genion, baina jendeak eskatu eta eskatu egiten zigun eta azkenean berriz egiten hasi ginen”.

Halako batean, “Bolao” hitza aipatu dute, eta zer den galdetu diedanean, han atera dituzte koskor zuri batzuk. Berehala etorri zait burura Etxe-Ona jate-txea, noizean behingo merienda eta uretan urtzen zen koskor zuri hura... Mari Paz gora igo eta traste handi batekin itzuli da; di-da zabaldu dute bi ahizpek obradoreko entzimera gainean “gitarra” izenekoa, eta “bolaoa” nola egiten zuten azaldu dute: “Arrautza zuringoa, azukrea, ura eta limoi ura behar dira, besterik ez. Puntua hartu behar zaio, eta gero hemen, gitarra gainekeko paperen gainean bota, zabaldu, eta gogortzen utzi”.

Orain ez omen da egiten inon inguruan. “Etorri zen Azkoitiko mutil bat ikastera, baina ez zuen ikasi, ez delako erraza, puntua hartu behar zaiolako”.

Harritu egin naiz hainbeste produktu egiten zituztela jakitean, eta galdetu diet errezetak non dauzkaten apuntata: “Apuntatuta? Hemen!”, eta atzamarra kopetara eramandu du Mari Nievesek, “Buru-

“Ez dut besterik gogoan! Beti ibili izan gara hemen”

ruan. Anaiak [Agustinek] daki nola egin diren”. Horixe izan da, hain zuzen ere, albeditarren ezaugarrietako bat, produktuak antzinako erara egitea, aldatu gabe, belaundiz belaundiz: “Nik dakidala, gure atittak horrela egiten zituen, berdin-berdin. Aita ibili zen Madrilen ikasten, baina azkenean atittak bezala egiten zituen, eta guk berdin, gure aita bezala”.



### Beti zabalik

Denda beti egoten zen zabalik, egunez ez zen ixten, ezta eguerdian ere. “Gure aitak beti esaten zuen ez zela ezergatik itxi behar, itxiz gero beste norabaiterako bidea erakusten zelako. Behin itxi genuen, 15 egun, paretetan azulejoak jartzeko, baina, bestela, beti zabalik egon da hau”. Gabonetan eta Urte Berri egunean ere zabalik egoten zen, egun berezi horietan bezeroei zerbitzua emateko, orain dela 4-5 urte arte.

Gogoan daukate aspaldi arazoak izan zituztela, Udaltxetik agindua etorri zitzaielako janari dendak itxita egon behar zutela larunbat arratsalde eta igandeetan. “Guk pastelak saltzen genituelako zabalik izaten genuen denda asteburuan, baina Txinbi beti erne egoten zen, zer ematen genuen, janaririk ez saltzeko. Zer zen, ba, zorrotza, Txinbi txaperoa!”. Mari Paz akordatzen da gaztetan behin edo

behin joan zela apaiz etxera, dirua eskuan hartuta, jaiegunetan lan egin ahal izateko baimen edo bulda ordaintzera, bekatua zelako, bestela”.

Oporrak hartzeko-eta, beraien artean moldatu izan dira, txandan-txandan, eta batzuetan kanpoko laguntzailearen bat ere izan dute, despatxoan edo pastelak banatzen. Zubia lagunaren irudia etorri zait, errepartorako otarrak besoetan hartuta pastelak banatzen herrian: “Beti egin izan dugu horrela, pastelak etxera eramán; herri osoa ondo baino hobeto ezagutzen dugu, zein non bizi den”.

Ordutegiari buruz galdetuta, hauxe erantzuna: “Lanaren arabera jaikitzen ziren gizonak; lan asko egonez gero, igual goizeko 03:00etan; gutxiago bazegoen, 05:00etan, eta bukatu arte; pasteleria, berriz, 08:30ean zabaltzen genuen, eta 13:00ak arte; arratsaldean, berriz, 16:30etik 20:00etara; baina itxita egonda ere, atea joz gero, beti zabaltzen genuen”.



ALBERDI FAMILIA

### ◀ BIZITZA OSOA PASTELERIAN

Mari Nieves eta Mari Paz gazte-gaztetatik hasi ziren lanean pastelerian; beheko argazkian Mari Nieves agertzen da Maribel ahizparekin duela 50 urte inguruko argazkian.

**MAITE**  
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278

**Maluta**  
Jatetxea • taberna



oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

**Maxi**  
solarium

ileapaindegia  
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea



Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

**METRO**  
taberna



ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 537 901

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

✓ Eguneko menua.  
✓ Asteburuetan txotx,  
sagardotegiko giroan.



Muniosoro, 54  
OIKIA  
tel.: 943147891

**muniosoro**  
Taberna - Jatebiza

**Nikol Enea**



TABERNA

Amaiako plaza

ETXEGINTZA  
**OLIDEN**  
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257

**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK



Etengabeko garabi zerbitzua

636 887 812 (Zumaiá)  
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaiá  
Tel.: 943 861 363  
zumaiá@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kuxtilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

**OSKARBI**  
KIROLAK



Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbikirolak@euskalnet.net

**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIÁ, S.L.

Joxe Mari Korta Industriegunea, A1 - 4. pat. 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ostolo@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Julio Beobide Ibitokia, 1  
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25



ARGAZKIAREN SANTAMARIA

## Bi koadro

Mari Nieves eta Mari Pazen birraitonak, Jose Bentura Ibarrek, Ibarreneko dendan, Zunbillo kalean, dena fidantzaz saltzen omen zuen; miseria handia zegoen garai hartan, dirua gutxi, eta beti ari zen zuloa tapatu eta zuloa egin.

Behin batean, etorri zitzaion lagun bat bisitan Jose Benturari, eta ikusi zuenean nola zeramakien negozioa, esan zion ezin zuela horrela jarraitu, ez zuelako kobratzen; horrela jarraituz gero, negozioak ez zeukala etorkizunik. Handik denbora batera, Jose Benturak bi koadro jaso zituen, bisitan joandako lagun horrek bidaliak: koadro batean, zarpailez betetako gizon bat ageri zen, arratoiez inguratuta, eta azpian jartzen zuen "Fidantzaz saltzen duena"; beste koadroan, berriz, gizon elegante bat ageri zen, urrezko kate eta erlojuarekin, eta azpian jartzen zuen "Dirua eskura saltzen duena".

Handik aurrera, Jose Benturak fidantzaz saltzen jarraitu zuen, beti bezala.

## Azukrea Donostiatik

Gerra Zibilaren ondorengo urteak gogorrak izan ziren: eskasia, gosea, errazionamendua... Jangaiekin kartilla izaten zen, gehienezko kopurua, eta pastelak egiteko behar baino azukre eta irin gutxiago izaten zuten alberditarrek. Horregatik, Jose Agustín sarri-sarri joaten zen trenez Donostiara. Zakukada azukre eroste zuen estraperloan eta buelta egiten zuen. Behin, ordea, karabinerok harrapatu egin omen zuten geltokian, zakuarekin. Jose Agustinek azaldu omen zien pasteleria zeukala Zumaian eta pastelak egiteko derrigor behar zuela azukrea. Konbentzitu zituen, nonbait: karabinerok ez ikusiarena egin eta ohi bezala ekarri ahal izan zuten azukrea trenez.

## Arrautzak kontserbatzeko

Lehen ez zegoen hozkailurik, eta arrautzak kontserbatzeko, kare bizian edo gatzunetan sartzen zituzten. Alberditarren aitak, Jose Agustinek, uralitazko depositu batzuk erosi zituen, eta hor edukitzen zituen karkaban, Olanoren garajea. Gero, hozkailua jarritakoan, Korta okinari eman zizkion deposituak, garai hartan askotan izaten zelako ur eskasia eta ogia egiteko ura behar zuelako Kortak.

## Gozogileak epaitegian

Chupa-chups enpresak lantegia jarri zuenean, Zarauzko Reina enpresaren aurkako salaketa jarri zuen, ustez kopiatu egiten zizkiolako gozoki makilatxodunak. Reineta nagusiak eskatu zion Jose Agustini lekuko gisa joateko epaitegira, horrelako gozokiak aspaldi-aspalditik egiten zirela egiaztatzeko. Epaileak Reineta eman zion arrazoia.

## Barkuetako marinela

Marinel asko etortzen ziren Alberdirenera, itsasontziak karga-deskargan zeuden bitartean. Goseak etortzen omen ziren, eta askok eta askok, basokada esne hartzen zuten; azukrea bota beharrean, bolaoa urtzen zuten esnetan; lagun-garri, pare bat pastel!

## Elkarleku eta gordeleku

Lehen emakumezkoak ez ziren joaten tabernetara. Garai batean, Meza Nagusiaren ondoren, neska-mutilak Alberdirenera joaten ziren, jereza eta kafetxoa hartu eta han egoten ziren. Uda arratsaldeetan, berriz, Azpeiti ingurutik zetozen neskak Alberdirenean hartzen zuten freskagarria eta merienda, eta poltsak han (obradoreko txoko batean) utzita, dantzara joaten ziren, plazara. Azken trenea baino lehen etorri, trasteak hartu eta martxa!



ALBERDI FAMILIA

▲ **ALBERDI-IBARRA FAMILIA** *Fakundok eta Eustasiak hamahiru seme-alaba izan zituzten., eta 1935eko argazkian ageri dira guztiak. Behean, ezkerrean, ALBERDI-ARANO familia; ezkerretik eskuinera, Agustin, Mari Nieves, Mari Paz eta Maribel, atzealdean gurasoak (Jose Agustin eta Nieves) dituztela.*

▶ *Esquinean, goian, Jose Agustin Alberdi, Eduardo Torreira eta Azisklo Alberdi, 1990 inguruan, Parolean. Behean, Mari Nieves eta Mari Paz bolaoak egiteko "gitarra"-rekin.*



JAVIER CARBALLO







▲ **EHOTZECO HARRIA** *Ehun urte baino gehiago ditu kakaoo ehotzeko harriak, baina ondo kontserbatuta dago. Gainaldean dauden mailu, kako eta abar ere ordukoak dira.*

### Lehenagoaren xarma

Edozein lekutara begiratura, Alberdirenearn begiek berehala aurkitzen dute denboran atzera eginaraziko dien zerbit. Lehengo etxea erreta berria egin zenetik, dendan apenas aldatu den ezer, egin zenean bezalaxe dago: “Jesus Olaizola *Xuxarritok* egin zuen banaketa, eta batek baino gehiagok esan digu espazioa ezin hobeto aprobetxatuta dagoela, lokala txikia izanda, primeran aprobetxatuta dagoela”. Dendan, bereziki ematen dute atentzioa ispiluek: “Handia dago jarrita obradoretik zaintzeko zein sartzen zen dendara; horregatik dago angeluan, okerka. Eta beste ispilua, ate ondokoa... Zeinek ez du begiratu bere burua hor!”.

Obradorean, Mari Nievesek gogoan du noizkoa den labea: “Labe hau jarri genuen egunean ito ziren Parolmuturreko mutilak. Gure anaia ere haiekin ibiltzen zen, baina hau jartzen lagundu behar zuenez, ez zen joan”. Bestelako makinak eta trasteak ere badaude; batzuk enpleatuko omen dituzte nonbaiten, baina beste batzuk ez: “Sanidadea, gaur egun, oso zorrotza da, eta hauetako batzuekin ezin da lanik egin”, esan dute, eta kobrezko kazo kirtendun handiak atera dituzte, erakusteko. Badira, gainera, beste makina bat gauza gaur egungo gozotegi modernoetan aurkitzen zailak, lehenagoaren xarmaren distira umila daukatenak: “Horra hor gozokiak gordetzekoak, bolak, mostradorepean. Eta mostradorea... A zer pena!”, eta entzun dudanean, pentsatu dut egia dela batzuetan objektuak bizirik egoten direla.

Lanbidearen alde onen gainean galdetuta, bi ahizpak bat etorri dira: batez ere jendearekin tratua gustatzen zaie, harremana. Baina aitortzen dute oso lanbide lotua izan dela: “Hemen ez zegoen ez larunbat eta ez igande, beti lanean. Ni dantzan ere hasi nintzen gaztetan, Beti Gazten, baina asteburuetan kanpora irteten hasi zirenean, utzi egin behar izan nuen”, adierazi digu Mari Pazek. Jende asko ezagutzeko aukera izan dute, bai, eta bezero asko izan dituzte, oso fidelak eta esker onekoak.

## Ibarreneko harria

Ibarrenekoak edo Alberdinekoak gozogileak izan dira, eta alberditar hauena laugarren belaunaldia da. 1882ko paperetan Jose Bentura Ibarra ageri da kontribuzio industrialak ordaintzen zutenen zerrendan, “chocolatería en rollos a mano” zeukala eta. Mari Nievesek azaldu digunez, Zunbillo kaleko Ibarreneko etxean zeukan saltokia eta lantegia, eta denetarik egiten eta saltzen zuten han; izan ere, itsasontziak portura etortzen zirenean, besteak beste Ibarrenean erosten zituzten jangaiak, eta denetarik eduki beharra zeukaten; izozkiak ere bai, eta horiek egiteko izotza Izarraizko elurzulotik ekartzen omen zuten. Jose Benturak kakaoo ehotzeko erabiltzen zuen harria ere han da oraindik, eta ikusteko asmotan joan gara.

Maitane Urangak dauka han gaur egun denda, “Zapateixa”, eta berak erakutsi digu harria. Adreiluz egindako egitura biribil eta zulodun baten gainean errotarri biribila dago, azpian hiru arrabilekin, eta horri bueltak emateko (eta beste eginkizun askotarako) mandoa erabiltzen omen zuten. Baten bat saiatu omen zen harria handik atera eta beste nonbaiten jartzen, denek ikusteko moduan, baina Maitaneren aitak (Jontxuk) ez omen zion utzi. Gorrotxategi, Tolosako gozogile ospetsua, behin joan omen zen ikustera, hark ere bazeukalako antzeko bat txikiagoa, eta eraman nahi izan omen zuen, baina bistan da ez zuela lortu. Pena da horrelako altxorra ezkutuan edukitzea, bai, baina, aldi berean, ezkutuan eta ondo gordeta egon delako irau du gaur arte.

Edadetuena akordatuko dira Victor *Gerrillarekin*. Atzamar bat falta zitzaion. Txikia zela, sartu omen zuen eskua kakaoo-masa hartzeko, harriak harrapatu azpian eta atzamarra galdu omen zuen.

Mari Nievesek azaldu digunez, “Ibarreneko denda jauja omen zen. Umeak beti hemen bueltaka, zer jango. Karameluak paperean biltzen ere laguntzen zuten umeek: lau bildu eta bosgarrena ahora...”, dio irribarretsu.

# OTEZURI

## KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



# La Prima Vera

## pizzeria

Alta Mari, 17, behea  
tel. 943 247 011

# Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



# RUBIO

## Pinturak

PINTURAK,  
ARTE EDERRAK,  
ALFONBRAK,  
DROGERIA,  
PINTATURIKO PAPERA,  
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788  
Erribera 1 behea

# Talajaia

## taberna-jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



# TALAI-PE

## jatetxea-erretoria

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392



# Tapaia

## Taberna

Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

# TXIMISTA

## garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondoak (kodiñoa)  
Saltxitak, oilaskoak...  
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 behea -Tel. 943 573 905



# Txingurri

## Loradenda

Loradenda Lorazaintza  
erribera, 1 tel. 943 860 778  
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

# Urola 2000, s.l.

## Aroztegia

\*Eraikitzen akabera eta dekorazioa  
\*Baserrien zaharberritzea  
\*Enbarkazio konponketak  
\*Alo, zokalo, tarima eta pertsiarik  
\*Armarri enpolutuen aurrealdea  
\*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



# UZKUDUN

## taberna-jatetxea

Gosariak-Pintxoak-Kaxuelitak-Eguneko menua-Astebaruko menua-Merendak-Plater konbinatuak-Errazioak-Afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349



# Xanti Osa

## Arantxa Azkue

Amalako plaza, 13  
tel. 943 860 914  
657 794 153  
Denda: tel./faxa 943 862 385



# Zalla

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Uria Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA



# zapateixa

## Konponketak

Maitasun Ukananga

Oinetako eta erropa konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumala • 943 861 252 • 652 727 740



# Zumaia Hotela

## Jatetxea Kafetegia

Alai suztegia, 20750 Zumala tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



# Zerbitzu Ofiziala

## ZUMAIA MOTOR

Santiago auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



# ZUMAI A

## AUTO-ESKOLA


• Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua  
• Praktika eta azterketak Azpeltian  
• GURE HELBURUA:  
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

# Zumaia optika



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057



ARAN SANTAMARIA

### Momentuak

Urte asko izan dira lanean, eta pasadizoak ere asko izan dira. Mari Nieves akordatzan da nola behin Beheko plazan zegoen Maritxu tabernatik telefonoz deitu zieten eta lau dozena pastel enkargatu; hara eramán eta haiek ez omen zuten deitu. Eta beste gora-beherak ere bai. Adibidez, oso normala omen zen kalean pastelak eramatean ikusi eta esatea “Aizu, zuenetik pasa behar nuen, baina ikusi zaitudanez, apuntatu gure-rako pastelak”, eta batzuetan pastelariara bueltatu eta ahaztu apuntatzea. Orduan komeriak! Kontrakoa ere bai, ordea: pastelak enkargatu, jasotzea ahaztu eta beraiek ibili beharra telefonoz deika, akordarazteko.

Momentu txarrez ere galdetu diet, eta Mari Nievesek bereziki gogoan du bolada txar bat, 1986 edo 1987an gertatutakoa: “Anaia Benidormera joan zen, oporretara. Gaixorik etorri eta ospitalean ingresatu behar izan zuten; hari laguntzen Donostian nengoela, hara non eramán zuten senarra ere, larrialdietara! Ni biekin han! Hemen geratu ziren gure aita eta ama, edadetuak. Aitak, gainera, betikoa, negozioa ez zela itxi behar, eta ahalegindu zen pastelak egiten, baina hainbeste denbora egin gabe, ez zuen asmatzen... Desastrea! Hala ere, denda zabalik egon zen eta pastelak egin, egin zituen, orduan ere ez genuen itxi. Gainera, denboraldi hartan Erribera kalea urak hartzen zuen itsasgoretan eta ura sartzen zitzaigun hemen, barruraino”.

Kaskarreriaz akordatu naiz, gaztetxoez, eta galdetu diet ea nola moldatzen ziren adin bihurrian dauden gazteekin:

Itxi behar  
zutela  
zabaldu  
zenetik,  
ezagutzen  
dut zumaiar  
bat jaiero-  
jaiero bonbak  
erosten  
zituena,  
aprobetxatze  
aldera

“Ondo. Beti izaten ziren koadrilak inguruan. Hor [kanpoaldean, Erriberan] egoten ziren, bueltaka, eta halako batean sartzen ziren denak batera, zerbait, gauza txikiren bat, laurtzeko asmotan; baina huskeria zen, gauza gutxi”.

Dendatik jende asko pasatzen zen erreorteak jatera. Hojaldeira kuxtuloarekin zuzen mozten zutenean, beti pusketak geratzen ziren sobran, ertzak, eta gaztetxoez eta ez hain gaztetxoez pusketa haiek izugarri estimatzen zituzten. Ez hori bakarrik: “Umeak eskolatik bueltan zetozenean, gure aitak esaten zien ilaran jartzeko, bata bestearen segidan, eta kremaz betetako mahukatik zuzenean ahora ematen zien krema. Hura gozatua!”.

### Artisauen agurra

Harro daude orain arte egindako lanaz, gustura, eta sumatzen zaie. Eskatu diet esateko nola laburbilduko luketen beraien lana edo produktua. Pentsakor geratu dira biak, baina bat etorri dira erantzunean: ““Kalitatezkoa. Kalitatezko generoa erabiltzen genuen, eta bezeroek horixe estimatzen zuten, kalitatea, ondo egindakoa, betikoa. Gure lana artisauena zen, hasieratik bukaerara, lehengaietatik abiatuta produktua saltzera. Eta bezeroarekiko hurbiltasuna, arreta”.

Itxi egin behar izan dute, ordea. Ondo gogoan daukate noiz egin zituzten azken pastelak: “Apirilaren 10ean, igandean. Eta ez zen izan garai txarrengatik edo krisiarengatik, e?, hori ere entzun dugu-eta. Bi pasteleroak jubilatuta egin zirelako itxi dugu”. Nahigabea sumatzen zaie, bereziki Mari Nievesi: “Pena handia daukat. Hau gure bizitza izan da. Tarteka frigorifikoa zabalitzen dut, eta pastelik gabe, hutsik... Pena”. Denda oraindik zabalik daukate, baina denbora gutxirako. “Pastelik gabe ez du merezi zabalik edukitzea”.

Hemendik aurrera zer egingo duten galdetu diet: “Bizi, eta paseatu. Niri monotonía gustatzen zait, egunerokoa egitea”, erantzun du Mari Nievesek. “Nik paseatu. Aurten lehen aldiz hartu dut parte San Telmoko prozesioan! Orain arte hemen egoten nintzen, lanean”, esan du Mari Pazek.

Itxi behar zutela zabaldu zenetik, ezagutzen dut zumaiar bat jaiero-jaiero bonbak erosten zituena, aprobetxatze aldera. Berria jakin zenetik, zumaiar asko hurbildu zaizkie, orain arte egindako lanarengatik eskerrak ematera, eta oso maitatuak sentitu dira. Bide batez, elkarrizketa honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiete bueltan hainbeste urtean bezero eta lagun izan dituztenei, askorekin oso harreman estua izan dute-eta.

Neuk ere eskerrak eman dizkiet bi ahizpei, agurtu aurretik, eta pastelariako atea zabaldu dut. Ate gainean zegoen txintxarri soinurik ere ez dago orain. Kanpora irtendakoan, aurreko espaloitik begira egon naiz pixka batean. Eskaparatea hutsik ageri da eta ez dago amerik kristal aurrean, besoak koskan jarrita, meriendatzen, apaletako jostailu koloredunei begira, “Hori niretzat!”.

Inoiz asmatuko ahal dute pastel usaina gogoraraziko digun argazki makina! ■

# ZUMAIAKO MUSIKA JAIALDIA 2011

Abuztuaren 1etik 13ra



Zumaiko Udala



Uda MUSIKA Patronatza

## **1, astelehena**

22:00: KUP abesbatzaren kontzertua, parrokian.

## **2, asteartea**

22:00: Musika proiektzioa, Alondegian.

## **3, asteazkena**

20:00: Hitzaldia 'Musika zientziaren uhinetan', Alondegian.

## **4, osteguna**

22:30: Musika eta zinea Silent Band 'Chaplin', Ondartxo plazan.

## **5, ostirala**

20:00etan Atenaide Ensemble. Biolina, biola-gamba eta klabea. Antzinako Musika. Komentuan.

## **6, larunbata**

20:00: Jazz kontzertua. Nevermind trio + Julen Izarra, Mari kalean  
23:30: San Pedro Abesbatzaren Showa, Beheko Plazan.

## **7, igandea**

20:00: Hernasax Concierto Grosso, komentuan.

## **8, astelehena**

22:00: Musika proiektzioa, Alondegian.

## **9, asteartea**

22:00: Pello Ramirez eta Xabier Zeberio 'ON bikotea', komentuan.

## **10, asteazkena**

22:00: The Rivoli String Quartet eta Jose Mari Azkue. Soka laukotea eta Oboea. Komentuan.

## **11, osteguna**

20:00: Youth Brass 2000 Banda, plazan.

## **13, larunbata**

22:00: Nicholas Algelich piano kontzertua, Maria eta Jose antzokian.



# III. Zumaia Flysch Trail

**Lasterketa:** 30,5 kilometroko mendi lasterketa da, Zumaia eta Deba arteko itsaslabar ikusgarrietan.

**Noiz:** uztailaren 10ean, 10:00etan.

**Euskadiko Txapelketa**, taldeka.

Bildutako dirua Aspanogi elkartearentzat izango da, minbizia duten haurrei laguntzeko.

[www.zumaiaflyschtrail.com](http://www.zumaiaflyschtrail.com)



# UZTAILA-ABUZTUA

## ERAKUSKETAK

Uztailaren 8tik 24ra: Zumaiaiko txuri-beltzeko argazki lehiaketako lan enak. Gaia: "Garraibideak".

Lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna: ekainaren 23a.

Uztailaren 28tik abuztuaren 14ra:

Distira argazki elkartearen erakusketa Oxford aretoan.

Argazkiak salgai egongo dira eta bildutako dirua Nava Jeevan taldeari emango zaio.

## KRISTOBAL DEUNAREN JAIK NARRUONDO

### Uztailak 8, ostirala

20:00etan, suziriak jaien hasiera adieraziz.

22:00etan, mus, partxis eta eskoba txapelketak.

### Uztailak 9, larunbata

10:00etan, suziriak.

10:30ean, Zestoako Ildiakaitz txistulari taldea.

11:00etan, herri meza eta "kotxeen bedeinkazioa".

Ondoren, toldoepen auzoko jubilatuentzat hamaiketakoa.

17:00etan, ume jolasak.

Jarraian txokolatada.

21:00etan, afari herrikoa.

Ondoren, dantzaldia Egan taldearekin.

Jarraian, Djon-en emanaldia.

### Uztailak 10, igandea

7:00etan, Diana auzoko gidariekin.

13:30ean, sardina eta saiheski jana, trikitilariekin alaituta.

18:00etan, herri kirolak eta Gorriti bere animaliekin.

### 17, igandea

20:30ean Itzurun hondartzan ENEKO LARRAÑAGA: CORA doinuak.

### 22, ostirala

20:00etan Zumaia XI. 7ko futbol txapelketa. Finalak.

### 23 eta 24ean

ZUMAIKOKO DENDARIEN OUTLET AZOKA

### 23, larunbata

Itzurunen SURF FESTA

23:00etan kontzertua ADABEGI eta BAD Sound System

### 24, igandea

11:30ean Piraguismoko

Urola igo jaitsiera

### 25, astelehena

Eusebio Gurrutxaga

plazan BIDASOAKO

FOLKLORE JAIALDIA.

### 28, osteguna

TEINK Trofeoaren 2011ko

edizioko txalupen iristea.

### 29, ostirala

DANTZA KALEAN: Dantza

ikuskizunak herrian zehar.

### 30, larunbata

20:00etan Mariatxien kalejira.

22:30ean Eusebio Gurrutxaga plazan, MARIATXI KONTZERTUA: "Imperial de México"

### 31, igandea

12:00etan San Miguel Ligaren

baitan, ZUMAIKOKO

TRAINERU ESTROPADA.



Abuztuak 12, ostirala, EUSKAL JAIA.



Uztailak 28, osteguna  
TEINK Trofeoaren 2011ko edizioko txalupen iristea.

## UZTAILA

### 10, igandea

10:00etan III. FLYSCH mendi lasterketa

### 15, ostirala

20:30ean Parrokian, Organo

Kontzertua: LETIZIA ROMITI

### 16, larunbata

22:30ean Eusebio Gurrutxaga

plazan ZUMB-Musika bandaren

Udako kontzertua.

## ABUZTUA

### 1etik 13ra

ZUMAIKOKO MUSIKA JAIALDIA.

### 6, larunbata

GALA GAUA.

### 12, ostirala

EUSKAL JAIA.

### 15, astelehena

KALEKO PINTURA LEHIAKETA.

### 20, larunbata

KUADRILA EGUNA.

**TXALAPARTA**  
OPARIAN

Angelo Soraza, 2  
20750 ZUMAILA  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 143 089  
fax. 943 430 637

**KANTAUARI TABERNA**

Pintxoak - Plater konbinatuak - Kazolatuak  
Pintxos - Platos combinados - Cazuelitas

Kantauri plaza, bajo 4 - tel. 943 575 840

**PAPER** diseina grafikoa

Roberto Gutierrez

888 211 111 • rg@paperdesigngraficoa.org • www.paperdesign.org



## KATUA

Katu baten bila ibili naiz, baina ez dut aurkitu.

Ez naiz animalia-denda batera joan, nire moduko katua nahi dudalako: katu librea, kalera ohitua dagoena, hezigaitza. Horrelakorik ez da dendatan aurkitzen, kalean baizik.

Alde zaharreko kaletan barrena aritu naiz katu bila, jakina baita herri guztietako alde zaharrak direla katuen gordeleku gogokoenak, baina, hango katuak ohituegiak daude kaleko bizimodura, eta berehala egin didate ihes.

Handik nenbilela txikitan jolas-toki genuen Katu-kalez oroitu naiz, eta ziztu bizian joan naiz bertara hango katuak eskuragarriagoak izango direnaren esperantzan. Baina Katu-kalean etxe berriak egiten ari dira orain, eta katuak goxo bizi dira bertako adreilu eta porlan-zakuen artean etzanda.

Baserrian bizi diren lagunengana jo dut ondoren, baserritarrek beti izaten dituztelako etxean saguak kontrolpean izango dituzten katuak. Nire beharra azaldu diet lagunei, baina barre egin didate, nire xeblekeria baino ez delakoan.

Ikusten duzu katu bila aritu naizela, gogoz aritu gainera, baina ez dut katurik aurkitu. Horregatik nago oraindik hemen, zurekin hitz egiten, azken zerbeza beharko zukeena eskuan dudala eguna argitzeko zain.

Sikiera katua zain izango banuke etxera itzultzeko arrazoiren bat izango nukeelako, baina, horrela, ez daukat etxeratzeko arrazoirik.

Etxean bakardadea baino ez dudalako zain.



# TAKUN TABERNA

Ireki berria alai auzoan

Izustarni, 3  
tel. 943 865 289



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA




• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak





# zumartian

Uztailetik aurrera, webgune berria:

[www.zumartian.com](http://www.zumartian.com)

ezagutu Zumaiako eskaintzak



**Ekainak 1etik  
uztailaren  
15era**



**Zumaia  
elkartea  
txartela  
erabiltzeagatik...**

**2,5 euroko**

kontsumoa taberna  
eta kafetegietan



Zumaiako Udala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

BEZETIKO BEZITZAILEA  
REPARTICIÓN DE LA TIENDA SARA  
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA  
REGIÓN DE COMERCIO Y TURISMO



RURAL  
KUTXA

Saria datafonotik aterako da